

SOPELA. Irati Armentia sopelaztarrak irabazi dau lehenengo saria

Ikasleei neurritz erostearen garrantzia erakutsi guran

Mankomunidadeak ikasleei zuzendutako lehiaketea antolatu dau



Sopelako Ander Deuna ikastolako ikasle gazteak, atzo goizean sariak banatzeko eginiko ekitaldian.

Veronica Muñoz

Uribe Kostako Mankomunidadeko Gizarte Zerbitzuek eskualdeko ikasleek kontsumoaren ganeko kontzientziarazina euki daien lortu gura dabe. Horretarako, aurton, lehenengo aldiz, gaztetxoei zuzendutako lehiaketea ipini dabe martxan. Alkartasunezko eta Zentzuzko Kontsumoa izenburupean, ekimena Uribe Kostako ikasle guztientzat eratu dabe.

Lehenengo honetan, dana dala, bakarrik Sopelako Ander Deuna ikastoleak hartu dau parte. Beraz, irabazle guztiak ikastetxe horren ikasleak izan dira, ikastolako Derrigorrezko Lehenengo Hezkuntzeko bigarren mailako ikasleak, hain zuzen be. Sariak atzo goizean ba-

nandu ebezan, Mankomunidadeko egoitzan, Larrabasterrako Gatzarriñe kalean eginiko ekitaldi baten.

Sopelako 25 ikaslek hartu dabe parte kontsumoaren inguruan eraturako lehenengo lehiaketa honetan. Danetara 26 behar aurkeztu dabez eta, batez be, marrazkiak eta istorio idatziak izan dira.

Eskuzabaltasunaren garrantzia

Konchi Recio Plentziako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak atzoko ekitaldian azaldu ebanez, ia gehienetan umeak loturiko ipuinak asmatu dabez ikasle gazteok, lehiaketan aurkezteko. Ipuin horreetan, hasiera baten berekoiak izan arren, azkenean gauzak guztion artean banatzea ga-

rrantzitsuen dala ikasten daben umeen istoriak asmatu dabez.

Lehiaketa honen lehenengo saria Irati Armentiak jaso dau, *Pepe Txotxoloa* izeneko beharri esker. Bigarren lekuan Zugatz Llona geratu da, *Eneko Bihurria* izeneko idazlanagaz eta, hirugarren saria, barriz, Jon Martinez eta Goiuri Llanosen artean banandu dabe.

Laugarren sari berezi bat be egon da lehenengo lehiaketa honetan, beharren jatorrasuna saritzeko. Andutz Zulaikak eskuratu dau hori, *Mutil Berekoia* izeneko lanari esker.

Horrezaz ganera, amaitzeko, atzoko ekitaldian lehiaketan parte hartu daben ikasle guztiek liburuak eta diplomak be jaso ebezan.

Urteera horreetan parte hartzeko prezio bi dagoz. Bazkideentzat 90 eurokoa izango da eta, besteek 150 euro ordaindu beharko dabez. Prezioaren barruan ia gastu guztiak sartzen dira: bidaia autobusez, egondia apartahotel baten, gosaria, ikastaroa euskeraz (ordu bi egunero), eskietako txartela, tresnak eta aseguruia. Izena emoteko epea 26an amaituko da.

Bien bitartean, abenduaren 23tik urtarrilaren 3ra bitartean hainbat ekitaldi egingo dabe, 6 eta 12 urte arteko umei zuzenduta. Besteak beste Sukarrieta-ko baserri eskolea bisitauko dabe, tailerrak egingo dabez, eta patinetako aukerea be eukiko dabe gaztetxoek. Izena emoteko epea barikuan amaituko da. Informetako telefonoa hauex da: 94 491 43 57 (arrastian).

LAGUARREAN

ZAMUDIO

Lagatzuren bidez helduko jakoz Olentzerori hainbat eta hainbat gutun euskeraz, laugarren urtez

Lagatzu Zamudioko euskera alkarreak *Gutuna Olentzerori* lehiaketea antolatu dau, laugarren urtez, herriko ikasle gaztetxoei zuzenduta. Euskeraz idatziriko beharrak 24an bertan emon behar izango deusiez Olentzerori. Izan be, Zamudioko kaleak zeharkatu ostean, Olentzero beti lez herriko eskoletako patiora hurreratuko da eta, bertan, umeek emondako gutun guztiak jasoteko aukerea izango dau. Sariak 30ean, barikuan bananduko dabez, arrastiko 16:00etarako herriko kiroldegian prestatu daben ekitaldi berezi baten barruan. Izan be, Peio Añorga ipuin kontalaria gonbidatu dabe, kiroldegian saioa emon daian, eta horren ostean izango da sarien banaketea.

GETXO

Euskal dantzak ikasteko aukerea, Agurra taldeagaz

Algortako Agurra Kultur Alkarteko dantza taldeak euskal dantzen ganeko oinarritzko ikastaroa antolatu dau. Eskolak zapatuetan izango dira, eguerdiko 12:00etatik 13:00etara, eta ikastaroa urtarrilaren 11n hasiko da. Gura daben pertsona guztiek emon leikie izena, eta horretarako azken eguna urtarrilaren 7a izango da. Informazio gehiago: 94 430 01 94.

GETXO

Emakumeen ganeko antzerkia, Algortan

Entre mujeres antzerki taldeak *Tierra* izeneko antzez-lana agertuko dau etzi, barikuan, Getxo antzokian, arrastiko 19:00etan. Emakumeen Bideak zikloaren barruan antolatu dabe antzez-lana eta, horren bidez, euren jaioterria laga ostean urira behar egitera joan behar diran emakume batzuen istorioa kontetan dau antzerki taldeak. Antzez-lana ikusteko sarrerea hiru euroan ipini dabe.

GORLIZ

'Oliver Twist' Euskalduna jauregian ikusteko sarrerak zotz egingo dabez, bihar, Kultur Etxean

Gorlizko Kultur Etxeak *Oliver Twist* izeneko antzez-lana ikusi ahal izateko 10 sarrera zotz egingo dauz, bihar. Zozketan parte hartu gura daben guztiek Kultur Etxera jo behar dabe, eta bertan emongo deusien orria bete, euren datu guztiakaz. Eguenean, arrastiko 19:00etan egingo dabe sarreren zozketea. Bost pertsonak sarrera bi jasoko dabe, hain zuzen. Ikuskitzuna Bilboko Euskalduna jauregian izango da, datorren urtarrilaren 5ean, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Kultur Sailak sustaturiko Gabonak 2002 egitasmoaren barruan antolatu dabe.

AGENDEA

GETXO

Berbaldia: *Olentzero, sua eta Gabon Aroa*, Bittor Kapanaga Otxandioko idazle eta ikerlariagaz. Algortako Kultur Etxean izango da berbaldia, iluntzeko 20:00etan. Algortako Olentzero Herri Batzordeak Gabonetarako antolatu dauen ekitaldien egitarauaren barruan prestatu dabe ekitaldi hori, eta sarrerea doan izango da. **Erakusketea:** Marta Rodriguezek eta Gaizka Sanchezek keramikaz eginiko txotxongiloen erakusketea, Erromoko Kultur Etxeko erakusketa aretoan. 30 txotxongilo inguru ikusi ahal izango dira bertan, danak eskuz eginikoak. Horreen artean danetarik egongo da: sorginak, iratxoak, bikingoak... Abenduaren 31 arte egongo da zabalik.

Zinekluba: *Elling*, Petter Naess zuzendariaren filma emongo dabe gaur, Zineklub zikloaren barruan. Algortako Getxo antzokian izango da pelikulea, iluntzeko 20:00etan, eta sarrereak 2,40 euro balio dau.

LEIOA

Kontzertua: Gabonetako kontzertua emongo dabe, gaur, Leioako San Joan Batailatzaila abesbatzeak, Kantika herriko abesbatza gazteak eta Leioako Musika Eskolako Orkestreak. Iluntzeko 20:00etatik aurrera izango da musika emonald berezia, San Joan Batailatzaila elizan. Sarrerea doan izango da.

ERANDIO

Kontzertua: Abots Alai abesbatzeak kontzertua emongo dau, San Jose zaharren egoitzan, arrastiko 18:30ean.

ERANDIO

Bingo saioa: Arrastiko 19:30etik aurrera, herriko Nagusien Etxean. Hiru Gaztek antolatuta.

PLENTZIA

Berbaldia: *Komunikazinoa familia barruan*, Virginia Diego de Somonteren eskutik. Gaur arrastian izango da, Goñi Portal kultur etxean.

GETXO. Umeentzako ekitaldiak be prestatu dabez Gabonetarako, euskeraz

Ipar eskia egiteko aukerea eukiko dabe barriro euskaltzaleek, Bizarra Lepoan alkar-teari esker

V. M.

Bizarra Lepoan euskera alkarreak ekitaldi barri batzuk antolatu dauz, datozan hileotarako. Alde batetik, eta laugarren urtez, ipar eskia egiteko urteerak egingo dabez Getxoko euskaltzaleek, Jakako Somporte eski estazinora. Lehenengo urtarilean izango da, 17tik 19ra eta, bigarrena, otsailaren 14tik 16ra.